

2015-04-28an EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA .

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 28-04-2015 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregui
Rosario Arcarazo Arcarazo
Purificación Regisor Varela
Juan Luis Merino Sanabria
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria.

Edurne Iturbe Lascurain

Eskoriatzan, bi mila hamabosteko apirilaren hogeita zortzian, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Petralanda jauna eta Landa andrea.

En Eskoriatza, a 28 de abril de dos mil quince, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Beinat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Petralanda y la Sra. Landa.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2015/03/24an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2014/12/16an egindako bilkurako akta onartzeke gelditu da Regidor andreak eskatu duelako gai zerrendako 13. gaia aztertzerakoan publikotik parte hartu zuen pertsona identifikatzeko, eta baita berak ematen dion erantzuna jasotzea.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2015eko apirilaren 23ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz jakinarazi dira ondorengo erabakiak eta horiei buruz Idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako txostenak:

ALKATEAREN DEKRETUA

00213 zenbakiduna

Idazkari-kontuhartzaileak osatu duen Eskoriatzako Udaleko 2014ko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/ 2003 Foru Arauak emandako eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Udalaren 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

| | |
|--|--------------|
| 1.- Diruzaintzako fondo likidoak,2014 -12-31n: | 346.172,84 |
| 2.- Kokratu gabeko saldoak,2014 -12-31n: | 2.050.698,02 |
| Aurrekontuko zordunak: | 877.137,27 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 1.173.560,75 |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2014 -12-31n: | 493.080,99 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 312.900,31 |
| Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak: | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 180.180,68 |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | |
| 4.- Diruzaintzako soberakin gordina (1+2+3): | 1.903.789,87 |

2015/04/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

| | |
|---|----------------|
| 5.- Saldo kobragaitzak: | 528.123,79 |
| 6.- Diruzaintzako soberakin likidoa (4-5): | 1.375.666,08 |
| 7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako soberakina: | 71.916,56 |
| 8.- 2012ko abenduko aparteko ordainsaria. (Uztailaren 13ko 20/2012, E.L.Dekretuak 2.4 artikulua) | 79.211,40 |
| 9.- Gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina (6-7-8): | 1.224.538,12 |
| 10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | (-) 250.178,97 |
| 11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | (-) 59.545,38 |
| 12.- Doiketak, diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik . | 906.229,76 |
| 13.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | (-)134.286,71 |
| 14.- Aurrekontu emaitza (10+11+12+13): | 730.792,12 |
| 15.- Txerta daitezkeen kreditu soberakinak: | 579.889,51 |
| 16.- Txertatu ezin diren kreditu soberakinak: | 188.498,20 |
| 17.- Kreditu soberakinak, guztira (15+16): | 768.387,71 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuran.

Eskoriatza, 2015eko martxoaren 18an.

Alkatea

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 00220

DATA: 2015/03/24

GAIA: KREDITU ALDAKETA ZKIA:2. KREDITU GEHIGARRIA

ESPEDIENTEA: 2015KKRA0001

INTERESDUNA: ESKORIAZAKO UDALA

GAIA: Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 2 zenbakidun espedientea onartzea

2015/04/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

UDAL honetako Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea ikusita.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Aurreko guztia kontutan izanik, eta Foru Arauaren 34.3 artikuluan eta 2015eko ekitaldirako onartutako Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6-1 artikuluan jasotako eskumenak erabilita, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- UDAL honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

| Kapitulua | Izena | Gehikuntzak |
|-------------------------------|--|--------------------|
| 2 | Ondasun arrunten eta Zerbitzuen erosketak. | 15.000,00 € |
| 4 | Tranferentzia arruntak | 6.000,00 € |
| 6 | Inbertsio errealak. | 50.767,86 € |
| 8 | Finantza aktiboak | 2.500,00 € |
| GEHIKUNTZAK GUZTIRA... | | 74.267,86 |

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapitulua | Izena | GEHIKUNTZAK |
|------------------|-------------------|--------------------|
| 8 | Finantza Aktiboak | 74.267,86 € |
| GUZTIRA | | 74.267,86 € |

Bigarren.- Udal Batzarrari hurrengo bileran erabaki honen berri ematea.

Eskoriatzan, 2015eko martxoaren 24an.

ALKATEA

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 00219

DATA: 2015/03/24

GAIA: KREDITU ALDAKETA: TXERTAKETA (inkorporazioa)

ESPEDIENTEA: 2015KKRI0001

Eskoriatzako Udalaren 2015eko Aurrekontuan kreditu aldaketa espedientea tramitatu da, aurreko urteko Aurrekontuko kreditu soberakinak txertatzeko.

Aipatutako espedientea aztertu ondoren, Hazienda eta Kontuen batzordeburuak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena ere aztertu ditugu, eta baita espedientean egindako gainerako jarduketak ere.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 32.6. artikuluan kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

Bat.- 1 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea -aurreko ekitaldiko aurrekontuko soberakinak 2015eko Aurrekontuari txertatzeari buruzkoa-, ondorengo kapitulu laburpen honen arabera:

GASTUAK-GEHIKUNTZAK

| Kap. | Izena | Euroak |
|-------------|--|---------------|
| 2 | Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea | 50.742,03 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 4.776,00 |

2015/04/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

| | | |
|----------------------------------|--------------------|------------|
| 6 | Inbertsio errealak | 440.524,68 |
| TXERTATUTAKO SOBERAKINAK GUZTIRA | | 496.042,71 |

SARRERAK-FINANZAKETA

| Cap. | Denominación | Euros |
|-----------------------------|--|------------|
| 8 | Aktibo finantzarioak. Diruzaintzako soberakina | 496.042,71 |
| KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA | | 496.042,71 |

Bi.- Egintza hau irmoa eta betebeharrezkoa da, bestelako tramite barik; beraz, Fondoek Kontuhartzaitza zerbitzuek, onartutako aldaketa Kontabilitatean sartu beharko dute berehalako ondorioekin, sarreretan zein gastuetan.

Eskoriatza, 2015eko martxoaren 24a.

ALKATEA

PRESIDENTZIAKO 1. DEKRETUA

Fondoek kontuhartzaileak egindako 2014ko ekitaldiko Telesko Udal Telebistako Fundazioko aurrekontuen likidazio txostena eta hori osatzen duten dokumentuak ikusirik eta horrekin ados egonik, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 49.3 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabilia, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Telesko Udal Telebista Fundazioaren 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena onartzea. Hona hemen kitapenaren laburpena:

1. 1.- Diruzaintzako fondo likidoak 2014-12-31n: 6.976,23

2. Kobratzeko dauden saldoak 2014-12-31n: 15.660,10

Aurrekontu-zordunak: 13.366,60

Aurrekontuz kanpoko zordunak: 2.293,50

Aplikatu gabeko kobrantzak: 0,00

3. Ordaindu gabeko saldoak 2014-12-31n: 3.590,39

Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: 0,00

Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak: 0,00

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 3.590,39

Aplikatu gabeko ordainketak: 0,00

2015/04/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

4. Diruzaintzako soberakin gordina (1+2+3): 19.045,94
5. Saldo kobragaitzak: 12.952,51
6. Diruzaintzako soberakin likidoa (4-5): 6.093,43
7. Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako soberakina: 0,00
8. Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikina (6-7): 6.093,43
9. Indarrean dagoen aurrekontuko eragiketen emaitza: 706,16
10. Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: 18,90
11. Doiketak, diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: 2.834,06
12. Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: 0,00
13. Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): 2.834,06
14. Txerta daitezkeen kreditu soberakinak: 132,51
15. Txertatu ezin diren kreditu soberakinak: 1.507,08
16. Kreditu soberakinak guztira (14+15): 1.639,59

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuran.

*Eskoriatzan, 2015eko martxoaren 18an.
Alkatea*

IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZEKO TXOSTENEN ZERRENDA. TXOSTENOK AURREKO ESPEDIENTEEKIN LOTURA DUTE ETA UDALBATZARRA HORIEN JAKITUN GELDITZEN DA.

1.- 2014ko aurrekontuaren kitapen espedientea tramitatzeraoan Udal lur-zoru ondareari buruzko araudia betetzeari buruz 2015eko martxoaren 18an egindako txostena.

2.- 2014ko aurrekontuaren kitapen espedientea tramitatzeraoan finantza egonkortasunari buruz 2015eko martxoaren 18an egindako txostena.

3.- 2014ko aurrekontuaren kitapen espedientea tramitatzeraoan Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasun eta Gastu Arau helburuak betetzeari buruz 2015eko martxoaren 18an egindako txostena.

4.- 1. eta 2. kreditu aldaketa espedienteak tramitatzeraoan Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasun eta Gastu Arau helburuak betetzeari buruz 2015eko martxoaren 24an egindako txostena.

5.- 1. eta 2. kreditu aldaketa espedienteak tramitatzeraoan finantza egonkortasunari buruz 2015eko martxoaren 24an egindako txostena

2. kreditu aldaketari buruzko espedientearen gainean ondorengoek hitz egin dute:

Merino jauna: 2. kreditu aldaketaren espedientearekin Udalbiltzarako 6.000 euroko partida gaitzen dela eta Eudelerako ez dela inolako ekarpenik jasotzen aurrekontuan egiaztatu ondoren, horren aurka azaldu da, ez daudelako ados diru publikoa "batzuen" erakunde bati ematearekin. Esan du bere ustez Eudelentzat izan beharko litzatekeela diru hori, guztion erakundea baita

**2015/04/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario**

Alkate jaunak erantzun dio bere taldearentzat Udalbiltza Euskal Herri osoko udalak hartzen dituen erakunde bat dela, beraiek Euskal Herria ulertzen duten bezala, eta aitzitik, Eudelek bakarrik autonomia erkidegokoak hartzen dituela. Gehitu du denok dakigula Eudel hiru alderdik jarritako "txiringitoa" dela, eta ahaleginak egin arren ez dela lortu bertako zuzendaritzan Euskal Herriko alderdi politiko guztiek parte hartzea. Hala ere, esan du, badirudi aldaketak bat gertatzen ari dela, hurrengo agintaldian gauzatu daitekeena, eta hori gertatutakoan Eskoriatzako Udalak prest egongo dela ekarpena egiteko.

Cantero jaunak bat egin du Merinok esandakoarekin Eudeli eta Udalbiltzari buruz eta baita erakunde horiei buruz egindako balorazioarekin ere.

3.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da deialdiko gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

-HEMEN GARBIKETAK JAULKITAKO FAKTURAK ORDINTZEKO AGINDUA.

4.- HEMEN GARBIKETAK JAULKITAKO FAKTURAK (martxoak 16-apirilak 15) ORDINTZEKO AGINDUA.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko apirilaren 15ean egindako 9 faktura aurkeztu ditu (150686 zenbakitik 150695 zenbakira), 2015eko martxoaren 16tik apirilaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.

Apirilaren 17an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezketasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko zirela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- 2015eko martxoaren 16tik apirilaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2015eko apirilaren 15ean HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak (150686 zenbakitik 150695 zenbakira, biak barne) ordaintzeko agintzea.

5.- PROMOCIONES ESKORIATZA S.A. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA INTXAURTXUETAKO 32, 33 ETA 34. ZENBAKIETAKO 4 LOKALETAN EGOKITUKO DIREN ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZ.

2014ko ekainaren 26ko B14/00528 Alkate erabakiz hirigintza lizentzia eman zitzaion PROMOCIONES ESKORIATZA S.A. enpresari ondorengo obrak egiteko: 4 lokal etxebizitzarako egokitzeko Eskoriatzako II-2 sektoreko H lurzatian: 3 etxebizitza H1 etxebizitza blokearen etxabeetan egingo lirateke, eta, 1, H2 etxebizitza blokearen etxabeetan. Obrak Anselmo Iñurritegi Altuna arkitektoak idatzi eta 2013/01/23an bisatutako proiektuen arabera egingo dira.

Udalbatzarrak, 2014ko ekainaren 24an, PROMOCIONES ESKORIATZA S.L. enpresak sustatutako 4 etxebizitzari ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA eman zien.

2014ko azaroaren 20ko 01049. Alkate erabakiz Promociones Eskoriatzak sustatutako 4 UDAL ETXEBIZITZA TASATU esleitzeko oinarriak onartuta, zozketarako onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartutzat jotzen da.

Zozketa 2014ko abenduaren 16an egin zen, emaitza esleipendunei eta ordezkoei jakinarazi zitzairen, bakoitzari zein etxebizitza egokitu zitzaion adieraziz, eta guztiek jakinarazi diote Udalari etxebizitzari uko egiten diotela.

2015eko martxoaren 2an, Fernando Lucas Aguirre jaunak, Promociones Eskoriatza enpresaren ordezkarietan, eta udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzako 16.b artikuluan ezarritakoari jarraiki, baimena eskatu du II-2 sektoreko H lurzatiko H1 eta H2 etxebizitza blokeetan dauden udal etxebizitza tasatuak (Intxaurtxueta 32 behea ezk, Intxaurtxueta 32 behea esk., Intxaurtxueta 33 behea esk. eta Intxaurtxueta 34 behea esk.) esleitzeko prozedura hasteko.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzako 16.b artikuluan ezarritakoaren arabera, baimena ematea Promociones Eskoriatzako ordezkartzan ari den Fernando Lucas Aguirreri etxebizitzak eskuratzeko interesdunak lortzeko prozedura hasteko.

Bigarrena.- Erosleak lortzeko baimendutako prozedurarako gutxieneko baldintzak finkatzea, ondorengoak:

- ESLEIPENDUNEN BALDINTZAK:

Bizikidetzta-unityateko kidetako bat adinez nagusia edo emantzipatua izan beharko da. Oinarri hauetarako bizikidetzta-unityatetzat joko da etxebizitza berean elkarrekin bizi diren edo biziko diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean batuta daudenean ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez, adopzioaren bidez, hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidez. Ez da bizikidetzta-unityatetzat joko adiskidetasun edo komenientziagatik sortutakoa. Etxebizitzaren titularkide izango dira bizikidetzta-unityateko adin nagusiko kide guztiak, lerro zuzeneko ondorengoak izan ezik.

ETXEBIZITZARIK EZ IZATEA: Etxebizitzaren onuradunek ezingo dute etxebizitza erosten duten urteko urtarilaren 1a baino bi urte lehenagotik beste etxebizitzarik izan estatuan, dela erabateko jabetzan edo azalerakoan dela biziarteko gozamenen. Hala ere, onartu egingo dira etxebizitza beharra definitzen duten araudi autonomikoan ezarritako salbuespenak. Salbuespen horiek etxebizitzak administrazioari lagatzea aurreikusten dutenean, administrazio hori Eskoriatzako Udala edo honek izendatutako erakundea edo sozietate publikoa dela ulertu beharko da.

EGOITZA: Bizikidetzta-unityateko kideren batek honako hauek bete beharko ditu:

-Ohiko bizilekua eta errolda EAEko udalen batean izatea 2015eko urtarilaren 1a baino lehen.

DIRU SARRERAK: - Bizikidetzta-unityatearen urteko diru sarrera haztatuak 2014ko zerga-urtean, babes ofizialeko etxebizitzaren euskal autonomia erkidegoko araudian ezarritakoaren arabera kalkulatuta, ezingo dira izan 45.500 euro baino handiagoak, hau da, 1,3 indizea baino handiagoak erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko indarrean dauden gehieneko diru sarrerekiko.

- Haztatutako gutxieneko diru sarrerak ezingo dira izan 12.000 € baino txikiagoak.

Etxebideko etxebizitza eskatzaileen erregistroan izena emanda izatea eta bertan alta emanda egotea.

Babestutako beste etxebizitza baten esleipendun ez izatea.

- PROZEDURARI DAGOKIONEZ:

Esleitzerakoan kontuan hartuko den lehenengo irizpidea erroldatutako udalarekiko gertutasuna izango da, eta bigarrena, berriz, errolda antzinasuna.

Prozedura osoa publizitate, gardentasun eta lehia askeko printzipioak errespetatuz, eta honako arauen arabera egingo da:

Interesatuak bilatzeko epea jarriko da, 20 egun natural baino handiagoa.

Epe horren berri herriko eta eskualdeko komunikabideetan eta, gutxienez, Gipuzkoan hedapen handieneko bi egunkaritan iragarri beharko da.

Interesatuak bilatzeko epea amaitu ondoren, esleitu beharreko etxebizitza kopurua baino eskatzaile gehiago balego, esleipena zozketaz egingo da notarioaren aurrean. Zozketa horretatik esleipendun zerrenda bat eta zozketan esleipendun izan ez direnek osatutako itxaron zerrenda bat aterako da. Notarioak jasotako zozketaren akta eta emaitzak Udalaren esku jarri beharko dira.

Kasu bietan, kontratua bisatzerakoan egiaztatuko da interesatu bakoitzak betetzen dituen edo ez eskatutako baldintzak.

6.- IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK JARRITAKO ERAGOZPENAK 2015-EKO LEHEN HIRU HILEKOAN.

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko martxoaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- 00087. erabakia- Zinea euskaraz programako zaintza zerbitzuaren gastua onartzea eta ordainketa agindua (2015/01/04tik 2015/02/01era).

GASTUA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTURIK EZ EGOTEARREN EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA

(faktura falta da)

2.- 00196. erabakia- Zinea euskaraz programako zaintza zerbitzuaren gastua onartzea eta ordainketa agindua (2015/02/22tik 2015/03/08ra).

2015/04/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

GASTUA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTURIK EZ EGOTEARREN EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA

(faktura falta da)

3.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena .

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2015eko 1.).

4.- 00208. erabakia- 2013ko OHZeko errekar gutik salbuespena aitortzea ETXEBIZITZA KOOPERATIBEN GESTIO INTEGRALA S.L.-ri.

ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALEAN AURREIKUSITAKO KASUETATIK KANPO SALBUESPENA AITORTZEARI EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA

4.- 00229. erabakia- Zinea euskaraz programako zaintza zerbitzuaren gastua onartzea eta ordainketa agindua (2015/03/22).

GASTUA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTURIK EZ EGOTEARREN EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA

(faktura falta da)

5.- 00241. erabakia—B14/00123 erabaki bidez LEINTZ ESKOLA KIROLARI 2014an emandako diru laguntzaren bigarren zatia ordaintzeko agindua.

GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRAK EGUNEAN IZATEA EZ EGIAZTATZEAGATIK EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA

6.- 00245. erabakia- 2014/2015 ikasturterako udal diru laguntza kontzeptuagatik LEINTZ ESKOLA KIROLARI diru laguntza ematea, obligazioa aitortzea eta diru laguntzaren zati bat ordaintzea.

GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRAK EGUNEAN IZATEA EZ EGIAZTATZEAGATIK EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

7.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan

berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, 2014ko ekitaldiari eta 2015eko lehenengo hiru hilekoari dagozkion Udalari eta Telesko Udal Telebista fundazioarekin lotuta hartutako obligazioak ordaintzeko epeak betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

8.- UDAL KIROLDEGIKO GARAJEAK ERRENTAN JARTZEA: BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA ETA LEHIAKETA.

2009ko abenduaren 23ko erabakiz, udal kiroldagian dauden udal garajeak errentan esleitu ziren. **Kontratu**a lau urterako zen, 2010eko urtarrilaren 15ean hasita.

Kontratuaren indarraldia amaituta, komenigarritzat jo da esleipen prozedura berria hastea beste pertsona batzuk ere, interesatuta egonez gero, garajeren bat alokatzeko aukera izan dezaten.

Kiroldegian kokatutako garajeen errentamendurako baldintza administratiboen agiria aztertuta, eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Indarrean dauden errentamendu kontratuak amaitutzat jotzea datorren ekainaren 30ean.

BIGARRENA.- Kiroldegian dauden udal jabetzako garajeak lehiaketa bidez alokatzeko espedientea onartzea.

HIRUGARRENA.- Lehiaketa arautuko duen baldintza administratiboen agiria onartzea.

LAUGARRENA.- Lehiaketarako deialdia egitea iragarkia jarritz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean.

9.- EUSKARA IKASTAROETARAKO MATRIKULENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EUSKARA IKASTAROETARAKO MATRIKULAZIOETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ESKORIATZAKO UDALAREN ARAUDIA onartzea

Bigarrena.- Araudi hori jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak araudia aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

10.- GAZTEEN PROIEKTUENTZAKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- GAZTEEN PROIEKTUENTZAKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

11.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Ogasun batzorde informatzailearen diktamena **IKUSI DA.**

Diktamena botoetara jarrita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboiei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

| (*)KONTZEP/EPEA/ZKIA | ZENBATEKOA (€) | ZERGADUNA | ZERGATIA |
|----------------------|-------------------|---------------------------|--------------------------------|
| 031.200801.201 | 19,34 | BENGOA SEGURA EUSEBIO | Baja eskatuta 2006tik aurrera. |
| 031.200901.195 | 20,23 | BENGOA SEGURA EUSEBIO | Baja eskatuta 2006tik aurrera. |
| 031.201001.194 | 20,58 | BENGOA SEGURA EUSEBIO | Baja eskatuta 2006tik aurrera. |
| 031.201101.183 | 20,97 | BENGOA SEGURA EUSEBIO | Baja eskatuta 2006tik aurrera. |
| 031.201201.177 | 22,14 | BENGOA SEGURA EUSEBIO | Baja eskatuta 2006tik aurrera. |
| 031.201301.170 | 22,87 | BENGOA SEGURA EUSEBIO | Baja eskatuta 2006tik aurrera. |
| 001.199901.753 | 48,47 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.20001.798 | 49,67 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.200101.825 | 51,21 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.200201.854 | 53,25 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.200301.887 | 54,85 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |

| (*)KONTZEP/EPEA/ZKIA | ZENBATEKOA (€) | ZERGADUNA | ZERGATIA |
|----------------------|-------------------|-----------------------------|--|
| 001.200401.895 | 56,50 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.200501.921 | 58,30 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.200601.933 | 60,23 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.201401.1068 | 42,50 | GARCIA BEREINKUA FERNANDO | 1989ko behin betiko baja. |
| 001.201401.1212 | 71,35 | GONZALEZ TEJEDOR JON IRAITZ | 2013ko apirilaren 15eko baja Eskoriatzan |
| 001.201501.1201 | 71,35 | GONZALEZ TEJEDOR JON IRAITZ | 2013ko apirilaren 15eko baja Eskoriatzan |

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza eta Diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

12.- GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO 2015-ERAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA. Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte onartu daitezkeen Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

Lehenengoa.- BERAIEN JARDUERA GIZARTE ZERBITZUETAN GARATZEN DUTEN ELKARTEENTZAKO 2015-EAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

13.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO 2015EKO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak, onartu daitezen, proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

Lehenengoa.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO 2015EKO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

Hitz egin dutenak:

Merino jaunak esan du udal honetan inoiz ez dela inbertsioetarako aurrekontuko %0,7a lortu diru laguntza honetarako. Esan du gero eta gatazka gehiago daudela munduan, errefuxiatu gehiago, laguntza eskatzen duten GKE gehiago, eta nahiz eta herrialde honetan krisian egon, munduan badira beste leku batzuk jendea askoz ere okerrago dagoena, eta ahalegina egin beharko litzatekeela %0,7 hori bai edo bai lortzeko. Gehitu du esanda lagatzen duela datozenentzako.

Alkate jaunak esan du ados dagoela esandakoarekin. Jakinarazi du agintaldiaren hasieran Udalaren egoera ekonomikoa okerragoa zela, eta urteak igaro ahala lehen kendutako diru laguntza batzuk berreskuratu ahal izan direla poliki-poliki, eta adibide bezala egoitzarako laguntza eta GKEena aipatu ditu. Amaitzeko esan du orain dela 3 urte 0 eurotik 5.000 eurora pasatu ginela, baina, Juan Luisek esan duen bezala, munduko egoera gero eta okerragoa dela,

eta Eskoriatzako Udalak ahalegin bat egin beharko lukeela bide horretan.

Iregi andrea bat dator esandako guztiarekin, baina, jakinarazi nahi ditu bere zerbitzuak zenbaitetan izaten dituen zailtasunak elkarteren batzuekin dokumentazioa aurkeztu ditzaten edo diru laguntza zertarako erabili den justifikatzeko.

Cantero jauna ere ados agertu da esandako guztiarekin, eta adierazi du partida horrentzat oso erabilgarria izango litzatekeela Udalbiltzarako ematen den dirua.

14.- GALDERAK ETA ESKARIAK.

14.1.- Luis Ezeiza Herri Eskolako mantentze-lanak.

Regidor andreak galdetu du nori dagokion Luis Ezeizaren mantentze-lanak, eta erantzun zaio Udalari dagozkiola.

14.2.- Merinoren babesa Alkateak atez ateko sistemaren gastuei buruz prentsan egindako adirezpenei.

Merino jaunak esan du, lehen ere berari esan badio ere, denon aurrean bere babesa erakutsi nahi diola Alkateari atez ateko sistemaren gastuei buruz Diario Vascora bidalitako gutunagatik, eta esan nahi diola ere arrazoi osoa duela. Eta gehitu du: arrazoi osoa du egia osoa esan dielako "poxpoloaren taldekoei". Betikoek maiatzaren 24ko kanpaina pozointzen dabilta. Eskoriatzan, Hondakinen mahaiari, alde edo molde azaldu dira sistema aldaketa honek izan dituen gastu guztiak, eta ezin da onartu hauteskunde hauetara etortzea "poxpoloaren taldekoak dena pozointzera, lotsagabeki gezurrak esatera, alfonbra pean begiratu beharko luketenean AP-1eko 10 milioiak non sartu dituzten ikusteko.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:55ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarla conforme, es aprobada el acta de la sesión celebrada el 24/03/2015.

El acta de la sesión de fecha 16/12/2014 queda pendiente de aprobación porque la Sra. Regidor ha solicitado que se identifique la persona que interviene entre el público dentro del asunto nº 13 de orden del día, así como que se haga constar la respuesta que ella le da.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 23 de abril de 2015 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de las siguientes Resoluciones y de los Informes emitido por Secretaría-Intervención en relación a las mismas:

DECRETO DE ALCALDÍA

Nº 00213

Visto el informe de liquidación del presupuesto de este Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2014, formulada por el/la Interventor/a de Fondos, así como los documentos que integran la misma, y encontrándola conforme, en el ejercicio de las competencias que me atribuye la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa

RESUELVO

Primero.- Aprobar la liquidación del presupuesto de este Ayuntamiento, correspondiente al ejercicio de 2014, y que presenta el siguiente resumen:

| | | |
|---|--------------|--------------|
| 1.- Fondos líquidos de Tesorería al 31-12-2014: | | 346.172,84 |
| 2.- Saldos pendientes de cobro al 31-12-2014: | | 2.050.698,02 |
| Deudores presupuestarios: | 877.137,27 | |
| Deudores extrapresupuestarios: | 1.173.560,75 | |
| - Cobros pendientes de aplicación: | | |
| 3.- Saldos pendientes de pago al 31-12-2014: | | 493.080,99 |
| Acreedores presupuesto gastos: | 312.900,31 | |

2015/04/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

| | |
|--|----------------|
| Acreeedores presupuesto ingresos: | |
| Acreeedores extrapresupuestarios: | 180.180,68 |
| - Pagos pendientes de aplicación: | |
| 4.- Remanente tesorería bruto (1+2+3): | 1.903.789,87 |
| 5.- Saldos de dudoso cobro: | 528.123,79 |
| 6.- Remanente de tesorería líquido (4-5): | 1.375.666,08 |
| 7.- Remanente de tesorería para gastos con financiación afectada: | 71.916,56 |
| 8.- <i>Paga extra de navidad de 2012.</i> <i>(artículo 2.4 del Real Decreto Ley 20/2012 de 13 de julio)</i> | 79.211,40 |
| 9.- Remanente de tesorería para gastos generales (6-7-8): | 1.224.538,12 |
| 10.- Resultado operaciones presupuestarias del presupuesto vigente: | (-) 250.178,97 |
